

Puntuak, guztira:

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2007

Irakurriaren Ulermena 2

Lehen Hezkuntzako laugarren kurtsoa

Data: _____

Izen-deiturak: _____

Ikastetxea: _____

Herria: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua


LUR AZPIKO BIZIA

Lurzorua oso aberatsa da. Animalia askok aurkitzen dute zelaietan bitzitzeko lekua, segurtasuna eta babesa. Lur azpian bizi badira ere, gehienak ateratzen dira lur azalera elikatzeke, materialak biltzeko, zona berrietara mugitzeko edo bikotea bilatzeko.

Zizarea

Luzeak, meheak eta hankarik gabeak dira eta gorputza uztaietan zatituta dute. Lur azpian tunelak egiten igarotzen dute denbora gehien, min ematen baitie argiak.

Euria egiten duen egunetan, lurreko zuloak urez betetzen dira eta lur azalera irten behar izaten dute zizareek arnasa hartzera. Zaila da burua eta isatsa bereiztea, isatsa lauagoa eta meheagoa bada ere.



Lurzorurako onuragarriak dira

Zizareak bere bikotea bizitzan behin bakarrik estaltzen du. Jaki-na, une berezia dela kontuan hartuta, piramide bat egiten dute lur-rearekin eta bertan dantza egiten dute bikotea erakartzeko. Benetan da gau aparta!

Zizareek egindako tunelei esker airea eta ura errazago iristen dira landareen sustraietaraino.

Satorra

Begi txikiak dituzte, sarritan azalarekin estaliak eta horrexegatik ez dute ia ezer ikusten.

Animalien artetik zuloak egiten trebeenen artean sailkatuta daude satorrak, pala antzeko atzaparrak erabiliz galeria ikusgarriak egiteko gaitasuna dutelako.

Lur azpian eraikitzen dituzte galeriak edo sator-zuloak.

Zenbait galeriaren amaieran satorren habia egoten da eta bertan jaiotzen dira lehen kumeak. Galeriatik kanpora ateratzeko zulo bat egiten dute eta berriro sartzean ixten dute.

Zutik lo egiteko ohitura dute, burua hanken artean babestuta.

Beste hainbat galeria egin eta horiek erabiltzen dituzte izugarri atsegin dituzten zizareak harrapatzeko.

Sator-zuloan sartzen den edozein animalia hiltzeko arriskuan dago, satorra oso animalia oldarkorra baita bere etxean sartzen direnekin.


Udaberri aldera kontrako sexuko sator batek bisitaren bat egiten badio, bere bikote bihurtzea gerta daiteke.

Satorra, bere gordelekua lur azpian zultzeko, aurreko hanketan dituen azazkalez baliatzen da.



Kilkerra

Karranka antzeko bat egiten dute kilkerrek, baina ez dute ahoa erabiltzen: sorbaldako hego gogorrek elkarrekin igurzten dituzte karranka egiteko. Emea erakartzeko egiten dute karranka. Salto handiak emateko atzeko hankak erabiltzen dituzte eta beren luzera hamar aldiz saltatzeko gaitasuna dute.



Hegoak dituzte, baina ez dute ezertarako ere erabiltzen, ez baitakite hegan egiten.

Animalia bakartia da eta urtebete bakarrik bizi da.

Gezurra badirudi ere, entzumena hanketan dute!

Inurriak


Gizarte baten pareko antolamendua dute inurriek: kolonia desberdinetan bizi dira elkarrekin eta komunitatearen alde lan egiten dute guztiek elkarturik. Urteetan bizi dira kolonietan erreginen menpe: erreginak zahartu ahala, ordezkatu egiten dituzte.

Oso ongi antolatutako komunitate hauetan honako taldeak bereiz daitezke:

- Erreginak: hegodunak dira.
- Arrak: ugaltzeko funtzioa dagokie bakarrik.
- Langileak: gizartearentzat elikagaiak lortzeko ardura dute, bai eta inurritegia eraiki, zaindu eta defenditzekoa ere.

Lurrean galeriak osatzen dituzte; 100.000 izan daitezke inurritegi bakar batean bizi diren inurriak. Inurrien tamaina txikia kontuan hartuta, benetan animalia indartsuak direla esan daiteke: kontuan izan, inurri batek bere tamaina hirukoizten duen ogi apur bat garraiatzeko gaitasuna duela.

Espedizio baten antzera irteten dira elikagaien bila eta inork ezer aurkitzen badu, etxerakoan «tinta ikusezin» antzeko bat botatzen du, gairontzeko inurriek aurkitutako altxorra eskura dezaten.



Natura ezagutzeko, ulertzeko eta gozatzeko gida (Kutxa Fundazioa)
Inurriei buruzko marrakia «Gazteen Entziklopedia»tik hartuta

LUR AZPIKO BIZIA

15. Idatz ezazu zertarako ateratzen diren kanpora lur azpian bizi diren animaliak. Hiru arrazoi eman.

- _____
- _____
- _____

16. Irakurri ondoko esaldiak, eta adierazi zein den testuaren helburu nagusia.

- Natura ezagutaraztea animalien ohiturak hobeki ulertzeko.
- Zizare eta inurrien artean ezberdintasunak deskribatzea.
- Intsektuen elikadura eta bizimodua azaltzea.
- Lur azpian bizi diren animaliangandik babesteko laguntza ematea.

17. Euririk egingo ez balu, zizareak lur gainera nahitaez aterako lirateke? Arrazoitu erantzuna.

18. Zizarea parekatzeko asmotan dabilenean...

- uzkurtu egiten da bola baten antzera.
- isatsetik muki antzekoa isurtzen du.
- gorputzean dituen uztaiekin zirkuluak egiten ditu.
- lurrez egindako piramide baten inguruan dantza egiten du.

19. Zergatik nabarmentzen dira satorrak?

- Azazkal luzeak dituztelako.
- Zizareak jaten dituztelako.
- Oso trebeak direlako galeriak egiten.
- Ikusmen ona dutelako.

20. Zer egiten dute satorrek beren kumeak babesteko?

21. Zer esan nahi du «oldarkorra» hitzak?

- Baketsua
- Langilea
- Erasotzailea
- Lagungarria

22. Kilkerrari buruzko atalean honako hau esaten da: *Gezurra badirudi ere, entzumena hanketan dute!*

Zergatik idatzi dute harridura ikurra (!)?

23. Ezagutzen dituzu inurrien antzeko antolamendua duten beste animalia batzuk? Azaldu antolamenduen antzekotasuna.

24. Inurri batek janaria aurkitu ondoren, inurritegiko gainerako inurriek nola aurkitzen dute janari hori?

- Erreginak utzitako janaria usainduz.
- Antenen bidez.
- Lehenengo inurriak utzitako usain arrastoari jarraituz.
- Aurkitu arte bueltaka ibiliz.

25. Begiratu inurrien irudia. Zer erakusten du? Aukera ezazu erantzun egokia.

- Inurriak nolakoak diren erakusten du.
- Inurritegiko galerietan zer dagoen erakusten du.
- Inurri langileek egiten dituzten lanak erakusten ditu.
- Inurritegietan milaka inurri bizi daitezkeela erakusten du.


26. Emandako testua zein liburutan bilatu beharko zenuke?

- Olerki liburu batean
- Entziklopedia batean
- Ipuin bilduma batean
- Egunkari batean

27. Testuan agertzen diren aditz gehienak...

- orainaldian daude.
- geroaldian daude.
- lehenaldian daude.
- singularrean daude.

28. Osatu inurriei buruzko eskema hau:



Total puntos:

Evaluación de la Educación Primaria 2007

Comprensión Lectora 1

4º Curso de Educación Primaria

Fecha: _____

Nombre y apellidos: _____

Colegio: _____

Localidad: _____

Servicio de Inspección Técnica

EL CARACOL PINTADO DE ROJO

El caracol Bol estaba orgullósísimo de su casa. Su mayor satisfacción era la concha en que se cobijaba, formada por una espiral perfecta y siempre reluciente.

Y no por ser un caracol grande y fuerte resultaba engreído o antipático. Nada de eso. Tenía muy buenos amigos y en el bosque se le apreciaba. Era serio y reflexivo y entre sus amigos su opinión valía su peso en oro.

Un día, el día más importante de su existencia, Bol estaba en un claro del bosque, cerca del límite donde los humanos hacían de las suyas. Cuando se dio cuenta de que un gran monstruo metálico se le echaba encima, apenas si tuvo tiempo de apartarse. Una pata redonda le pasó a menos de un milímetro, y quedó debajo de la panza del bicho, del que comenzaron a descender humanos.

Trató de alejarse de allí lo más rápidamente posible.

Salía de debajo del monstruo cuando...

¡Chop!

Pero... ¿qué era aquello? De las alturas acababa de caer una gota de un líquido de color rojo intenso, y justo había ido a parar sobre su concha, poniéndole perdido.

Nadie reparó en él.

Continuó moviéndose a la mayor velocidad que pudo, y en cosa de una hora ya se hallaba bajo la protección de las primeras matas. El monstruo fue ocupado de nuevo por los humanos y luego, después de rugir como una fiera, se marchó echando humo. Bol se quedó más tranquilo, aunque...

No supo el verdadero aspecto que tenía hasta que se encontró con una patrulla de hormigas.

—¡Bol! —gritaron—. Pero ¿qué haces tú así? Casi no te reconocemos.

Todavía no entendía muy bien lo que le había sucedido, pero se lo contó. Las hormigas se prestaron inmediatamente a ayudarlo. No había suciedad que no pudiera ser barrida con un buen frotado de hojas silvestres. Las hormigas fueron por ellas y Bol se tranquilizó.



Mucho después, con las hormigas agotadas, decenas de hojas silvestres gastadas y la noche encima, Bol se dio cuenta de su problema. Aquel color rojo chillón no se iba con nada.

La noticia, claro está, se expandió por el bosque. De la noche a la mañana Bol se había convertido en un auténtico fenómeno, al que todos querían ver.

Entre los mismos caracoles la cosa tuvo especial relieve. Unos le envidiaron por ser la novedad, y por el increíble color rojo de su casa. Pero otros, lejos de admirarle, le rechazaron y hasta se burlaron de su aspecto.

Tuvo que ir al médico. Glucsi, la lechuza, lo observó con sus penetrantes ojos. Lo único que le dictaminó fue:

—Espera a que llueva y veremos.

Tuvo que esperar un mes pero, cuando por fin llovió, no cayeron lo que se dice cuatro gotas. Fue una auténtica tromba de agua. Bol la aguantó firme y decidido.

Sin embargo...

Por la mañana, el color rojo de su casa aún era más rojo y más brillante.

Glucsi, la lechuza, se rindió. Le dijo que, siendo cosa de los humanos, estaba claro que poco podía hacer ella. Bol no tuvo más remedio que ir a ver al gusano Gus, que no era muy de fiar porque tenía unas ideas bastante raras.

—Poco tengo que perder —pensó.

El gusano Gus tuvo muchas ideas, pero ninguna sirvió de nada. Primero, le frotó con barro y, en cuanto el sol lo secó, fue cayéndose a pedacitos hasta no quedar nada en la concha de Bol. Segundo, se le ocurrió ponerle una mitad de cáscara de nuez encima de la concha pero, de esta forma, iba más despacio y acababa agotado. Tercero, le acompañó a ver a la araña Bonifacia para que le tejiera una tela. A los dos días tuvo que ir a que se la quitaran porque llevaba encima pegadas un montón de moscas.

Bol se rindió. Se sentía tan avergonzado que decidió marcharse del bosque sin decir nada a nadie.

No llevaba recorridos más de unos dos metros cuando se detuvo asustado.

Por el monte subían en aquel mismo momento decenas de humanos con enormes cestas con intenciones que Bol conocía muy bien. No tuvo tiempo de dar la voz de alarma.

Dos pies humanos se situaron a su lado. Y luego muchos más le rodearon. Nadie se agachó para cogerlo

—¿Has visto tú nada igual? —dijo una voz.

—No, nunca, la naturaleza no hace caracoles rojos. ¡Estará contaminado!

—Será mejor que no entremos en este bosque —acabó diciendo otra voz.

Y poco a poco fueron dando media vuelta, marchándose, regresando a sus coches y dejando con vida a Bol.

La acción del caracol había sido vista desde los árboles y los pájaros se encargaron de llevar la noticia a todos los rincones del bosque.

Enseguida apareció la lechuza.

—Bol, regresa —le pidió.

—No puedo. Soy distinto.

—Eso no importa. Te habría venido a buscar, enviado por los demás, aunque no te hubieses convertido en el salvador de los caracoles. Ahora no sólo te siguen queriendo, sino que te necesitan.

La lechuza no se lo pensó más, lo cogió con su pico y regresó con él al bosque, donde ya le esperaban todos. Y en efecto, los hombres nunca volvieron a llevarse los caracoles de allí porque, cada vez que llovía, con mucho valor, se iba a esperarlos y, convencidos de que la plaga seguía, se marchaban sin coger ninguno.

Un día ya no lo intentaron más.

Adaptación del cuento «El caracol pintado de rojo»
Pelucónas. SM (Lecturas de ciclo medio)

EL CARACOL PINTADO DE ROJO

1. Explica el significado de estas expresiones dentro del contexto.

- Un gran monstruo metálico: _____
- Una pata redonda: _____

2. ¿Por qué los demás caracoles le pedían la opinión a Bol?

- Porque era serio y pensaba antes de tomar una decisión.
- Porque era grande y fuerte.
- Porque se le ocurrían ideas muy originales.
- Porque les daba la solución muy rápido.

3. Después de leer toda la lectura, piensa y responde: ¿por qué dicen en el texto que el día que le cayó a Bol el líquido rojo fue el más importante de su vida?

4. ¿Cuándo se dio cuenta Bol del problema que tenía?

- Cuando vio llegar el monstruo metálico al bosque.
- Cuando llegó la noche y las hormigas no consiguieron su cometido.
- Cuando le cayó la pintura en la concha.
- Cuando se encontró con una patrulla de hormigas.

5. ¿Qué te parece el comportamiento de las hormigas con Bol? ¿Por qué?

6. ¿Cuánto tiempo tuvo que esperar Bol a que lloviera?

- 15 días.
- Más de un mes.
- Dos semanas.
- Un mes.

7. Sabemos como es Gus por las cosas que hacía. Describe cómo es y da un ejemplo de lo que hizo para demostrarlo.

8. Numera las siguientes frases en el orden que los acontecimientos suceden en la historia.

- Las hormigas le ayudaron con hojas silvestres.
- Gus le propuso distintas ideas.
- Bol se fue del bosque...
- De las alturas le cayó a Bol una gota de color rojo.
- La lechuza le recomendó que esperara a que lloviese.

9. ¿Por qué Bol decidió irse del bosque?

- Porque los otros caracoles se burlaban y se reían de él.
- Porque con ese color podría engañar a los humanos.
- Porque no quería ser raro, distinto a los demás caracoles.
- Porque en el bosque ya nadie le apreciaba.

**10. ¿Cómo consiguió Bol que los hombres no volvieran al bosque?
Cuenta el final de la historia.**

**11. Si te fijas bien, en el texto aparecen frases cortas con un guión
delante. Indica su función.**

- Sirven para que el texto se entienda mejor.
- Sirven para marcar el diálogo entre los personajes.
- Marcan las frases más importantes del texto.
- Transmiten la opinión del autor.

12. ¿Cuál es el mensaje principal de esta historia?

- Los caracoles rojos son perjudiciales para la salud.
- En el bosque hay animales en peligro de extinción.
- A los humanos les gusta ir al bosque a coger caracoles.
- Los hechos son más importantes que el aspecto exterior.

13. ¿Habría sido mejor titular la historia «La lechuza amiga» que «El caracol pintado de rojo»?

Explica por qué.

14. Escribe tres cosas que demuestren que se trata de una historia de ficción.

Puntuak, guztira:

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2007

Problemen ebaluazioa

Lehen Hezkuntzako laugarren kurtsoa

Data: _____

Izen-deiturak: _____

Ikastetxea: _____

Herria: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua

1. Denda bateko apalategi batean 2.160 DVD daude eta beste batean kopuru horren herena dago. Guztira, zenbat DVD daude?



Ebatzi problema

2. Zuhaitz egunean, Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoko 25 ikasleek zuhaitzak landatu behar dituzte. 5 zenbakiko lurzatian aritzea tokatu zaie zozketan. 15 ilara eginen dituzte eta ilara bakoitzean 24 zuhaitz landatuko dituzte. Kutxa bakoitzean 8 landare baldin badaude, zenbat kutxa beharko da?




Emitza lortzeko, esan hurrengo datuak behar diren edo ez:

Datuak	Bai	Ez
25 ikasle dira		
Lehen Hezkuntzako 4. kurtsuan daude		
5 zenbakiko lurzatia da		
Lurzatiak 15 ilara ditu		
Ilara bakoitzean 24 zuhaitz daude		
Kutxa bakoitzean 8 landare daude		

Ebatzi problema

3. Irenek paisaia bat margotu du pintura tailerlean. Koadroa angeluzuzena da eta neurri hauek ditu: 30 cm luze eta 20 cm zabal. Markoa jarri nahi dio, bere gelan zintzilikatzeko gero. Markoa egiteko, zenbat zentimetro listoi beharko ditu?

Ebatzi problema



4. Atari bateko 24 auzokideek obra egin dute eskaileretan. Obra hori 16.700 euro kosta zaie. Udalak 2.900 euro eman dizkie, laguntza moduan. Zenbat euro ordaindu beharko ditu auzokide bakoitzak?



Pentsatu eta osatu:

Zer dira kopuru hauek?


24 _____

16.700 euro _____

2.900 euro _____

Ebatzi problema

5. Kamioi batek bidaia bakoitzean makina hauek garraiatzen ditu: 17 kafe-makina, 29 txutxe-makina eta 8 freskagarri-makina. Hilabetean 12 bidaia egiten baditu, guztira zenbat makina garraiatuko ditu?



Ebatzi problema

6. Asierrek eta Anek opariak egin nahi dizkiote Andreari bere urtebetetzean. Gauza hauek erosi nahi dizkiote: 4 euro balio duen giltzatako bat, 12 euro balio duen musika CD bat eta 34 euro balio duen kalkulagailu bat. Asierrek eta Anek diru kopuru bera jartzea erabaki badute, zenbat ordaindu beharko du bakoitzak?

Ebatzi problema

Puntuak, guztira:

Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2007

Testu Idatzien Ekoizpena

Lehen Hezkuntzako laugarren kurtsoa

Data: _____

Izen-deiturak: _____

Ikastetxea: _____

Herria: _____

Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

Ariketaren deskribapena

Aurten 4. kurtzoko ikasleok pirata mozorroa jantziko dugu ikasturte amaierako festan. Klasean piraten istorioak irakurri ditugu, eta **orain gutako bakoitzak piraten abentura bat idatzi behar du**. Ikasturte amaierako festaren bezperan klasean irakurriko dizkiegu ikaskideei eta denak «Piraten liburua»n bateratuko ditugu, etxean gure gurasoei eta gure anai-arrebei ere irakurri ahal izateko.



Idazten hasi aurretik, gidoia egin

Gidoi bat egin behar duzu, zure ideiak antolatzeko:

- Erabaki ezazu nolakoa izanen den idatziko duzun istorioaren pirata-protagonista: zein den bere izena, nolakoa den, zer duen, zer falta zaion...
- Pentsa ezazu bere itsasontzian eta norekin doan.
- Idatz ezazu zer egin duen, zer gertatzen zaion: norekin egiten duen topo, zer lortu nahi duen, gustatzen ote zaion egiten duena...
- Pentsa ezazu zein izan daitekeen zure istorioaren bukaera: dena konpontzen ote den, pozik edo triste ote dauden, merezi izan duela pentsatzen ote duten...

Orain testua idatziko dut

Pentsatu duzu honezkero nolakoa izanen den zure abentura, eta istorioa idazten lagunduko dizun gidoia ere baduzu. Orain has zaitezke.

- Egin ezazu poliki eta letra argiz.
- Izan gogoan puntuazio markak jarri behar dituzula eta, elkarrizketa bat idazten baduzu, marratxoa edo marra luzea.
- Has zaitetz paragrafo berri batekin gaiaz aldatzen duzun aldiro, eta pentsatu paragrafo bakoitzari hasiera emateko hitzetan.

Zure imajinazioarekin abentura eder bat idatziko duzu!

Oraindik ez dut bukatu

Idatzi duzu zure abentura. Irakasleari eman aurretik, eta batez ere, klasean irakurri aurretik, berrikus ezazu idatzi duzuna eta erantzun galdera hauei, BAI edo EZ biribilduz. Zure ustetan zerbait ez badago ongi, zuzen ezazu.

- Zure ustez, gustatuko zaie ipuin hau zure ikaskideei?

BAI EZ

- Zure ustez ongi ulertuko dute istorioa zuk ozen irakurtzen diezunean?

BAI EZ

- Zure testuak gutxienez ere hiru zati ditu?

BAI EZ

- «Hasieran», «gero», «beranduago», «hurrengo egunean», «azkenean» eta horrelako hitzak erabili dituzu?

BAI EZ

- Pertsonaien arteko elkarrizketaren bat idatzi baduzu, gogoratu zara marra-txoa edo marra luzea jartzeaz?

BAI EZ

- Zure ipuinean galdera eta harridura markak daude?

BAI EZ

- Gehiegi erabili ote dituzu «eta», «gero», «orduan», «pirata» eta horrelako hitzen batzuk?

BAI EZ

- Ortografia berrikusi duzu?

BAI EZ

- Zure ustez, emozioz beteriko abentura idatzi duzu?

BAI EZ

